

IRTEERA PROFILAREN LANKETA

Ikastolatik irtetea, izango naiz...

	Definizioa (Zer + Nola + Zertarako)
NEURE BURUAREKIKO ARDURATSUA	... Nire osasun- eta bizi- ohiturak zainduko ditut, neure burua onartuko dut eta nire emozioak erregulatuko ditut, bizi ohitura osasungarriak ezagutzuz eta hartuz, neure buruarekin eta besteekin hobeto sentitzeko eta bizi-kalitate hobea izateko.
LIBREA	... Neure buruaren jabe izango naiz, eta, horretarako, modu kritikoan eskuratu eta erabiliko ditut beharrezko ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak, bizitzako egoeretan erabakiak hartzeko eta nire bizitza-proiektua eraikitzeko.
EKINTZAILEA ETA AURRERA EGITEKOA	... Ekintzak planifikatu, gauzatu eta ebaluatuko ditut, jakin-mina, inizatiba eta irmotasuna erakutsiz eta ekina izanik, bizitzan zehar etengabe ikasten jarraitzeko eta erronka pertsonalei zein kolektiboei aurre egiteko.
JARRERA ZIENTIFIKODUNA	... Zientziaren jakintzan eta metodologian oinarrituko naiz erabaki egokiak hartzeko, informazioa zientifikoki analizatuz, aplikazio zientifiko eta teknologiko nagusiak modu jasangarrian erabiliz eta fenomeno naturalak zein sozialak interpretatuz eta balioetsiz, betiere gizartearen ongizateari ekarpena egiteko.
SORTZAILEA	... Ideia berriak bilatu, eta proiektu berriak garatuko ditut, inziatibarekin eta jokabide eta jarrera etiko eta malguak erakutsiz, pertsona gisa garatzeko eta gizarte bidezkoagoa /justuagoa eraikitzeko.
HIZTUN ELEANIZTUNA	... Euskaldun eleaniztuna izango naiz, gutxienez hiru hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa) zuzen eta eraginkor erabiliz ahoz zein idatziz, nire pentsamenduak, iritziak, azalpenak eta bizitzako eremu desberdinetako mezuak ulertzeko eta modu eraginkorrean adierazteko.
EUSKALDUNA	... Euskararen eta euskal kulturaren eusle, sustatzaile eta bultzatzaile izango naiz, gurea baloratuz, zainduz eta erabiliz eta euskaldunak ez direnak guregana erakarrituz, gure identitatea, hizkuntza eta kultura zaintzeko eta iraunarazteko.
ARTEAREKIKO SENTIKORRA	... Sentikortasun eta adierazpen artistikoa garatuko ditut, lengoaia ezberdinak ezagutzuz, landuz, erabiliz eta aintzat hartuz, (plastika, musika, dantza, dramatizazioa, literarioak, ...) nire sentimenduak, ideiak, proposamenak, beharrianak...eraginkorki adierazteko, eta haiekin gozatzeko eta gozarazteko.
PARTE HARTZAILE AKTIBOA	... Erantzukizunez, elkartasunez eta elkarlanean ikasi eta lan egingo dut ikastolan, herrian eta gizartean, arloan sozial, politiko eta ekonomikoari buruzko oinarritzko jakintzak eskuratuz eta era kritikoan erabiliz, gizartean eragiteko.
GIZA ESKUBIDEEN KONTROMETITUA	... Giza eskubideetan oinarritutako printzipio etikoekin eta elkarbizitzarako oinarritzko arau sozialekin bat datozen jokabideak izango ditut, gizartearen aniztasuna (sexu-, gaitasun-, kultura-, erlijio- ...aniztasuna) aintzat hartuz, elkarriketaren eta negoziazioaren bidez gatazkei irtenbideak bilatzeko eta kalitatezko elkarbizitza izateko.

IRTEERA PROFILAREN LANKETA

NATURAREN BABESLEA

... Ingurumena eta natura zainduko ditut, **naturaren partaide sentituz eta jokabide arduratsu eta jasangarriak sustatuz, ingurumena eta biodibertsitatea babesteko.**